

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2376

EBAZPENA, 2017ko maiatzaren 5ekoa, Kulturako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzen berri ematen duena.

2016ko abenduaren 30ean argitaratu zen EHAA 2016ko abenduaren 23ko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu honen 12.1 artikulua dioenez, Kulturako sailburuordeak hartutako Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei jakinarazpen indibidualizaturik egingo ez zaienik.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2016ko abenduaren 23ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta baita horien guztien onuradunak argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 5a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ANTZOKIETAN
EGOITZA-PROIEKTUETARAKO 2017KO DIRU-LAGUNTZAK

Eskatzailea	Diru-laguntza jaso dezakeen ekintza	Diru-laguntza
Ametx Erakunde Autonomoa	Egoitza programa: Markeliñe	25.000
Astarloa Kulturgintza	Egoitza programa: Ganso/Karrika	25.000
Azpeitiko Udala	Egoitza programa: Oholtzaberri.	15.000